

solasean



Izen-abizenak: Antonio Cadarso

Jaioterria: Biasteri

Adina: 23

Bizitokia: Biasteri



¿Por qué decidiste apuntarte al euskaltegi?

Porque quería mejorar mi nivel de euskera, lo aprendí desde pequeño, pero ya llevaba un tiempo sin usarlo, así que decidí recuperarlo.

¿Utilizas el euskera fuera de clase?

Sí, lo utilizo con algunos amigos y familiares, aprovecho para hablar con todo aquel que sabe.

Zenbait lagun eta senitartekorekin erabili ohi dut euskara, eta inguruan euskal hiztunik bada, euskaraz egiten diot, noski.

Tenemos entendido que aparte de las clases has reforzado tu aprendizaje mediante Mintzalagun. Cuéntanos tu experiencia

Nos reunimos una vez por semana alrededor de una hora en un bar, para mí la mejor manera de aprender y quitarte las inseguridades es hablar y hablar.

¿Cómo ves la situación actual del euskera en Rioja Alavesa?

Cada vez hay más gente que habla euskera, pero no todos se atreven a hablarlo por miedo a confundirse o por falta de costumbre, todavía tiene que pasar más tiempo para que el idioma cuaje más por aquí.

Gero eta lagun gehiagok egiten du euskaraz, baina batzuk oraindik lotsatu egiten dira, dela beldurra, dela ohitura falta... Nire ustez urte batzuk igaro behar dira oraindik euskara finkatuko bada.

¿Qué crees que se debería hacer para mejorar la situación?

La clave es la educación desde

pequeños, quitarle esa fama de idioma difícil y crear eventos para practicarlo de forma divertida, a un adulto que no le interese aprender, poco le podrás convencer de estudiar idiomas o cualquier otra cosa, todo tiene que surgir de uno mismo.

¿Qué le dirías a alguien que no conoce el euskera?

Que si le gustan los idiomas le va a encantar, es un idioma único y muy antiguo, que simplemente para mi gusto es precioso.

Hizkuntzak atsegin dituenak disfrutatzeko aukera paregabea du euskararekin. Hizkuntza berezia eta zaharra dugu. Oso gogokoa dut.

Mantible aldizkariaren 22.alean ikasleei galdera hau luzatu diegu: zein da gehien gustatzen zaizuen euskal izena?

Olatz Fernández

Maddi. Bere esanahiagatik eta ahoskatzeko moduagatik. Bestalde, oso izen ederra eta bitxia iruditzen zait neskentzat. Gainera, Maddi naturaren Erregina eta berau osatzen duten gauza guztien ama da; Euskal mitologiako pertsonaiarik garrantzitsuen da.

Iraitz. Behin batean telebistan entzun nuen, eta harrezkerotik gogoan izan dut beti; agian ordura arte entzuteke bainuen. Oso polita iruditu zitzaidan, eta mutilentzat oso egokia dela pentsatzen dut.



M^a Pili Herмосilla

Amaiur. Behin besterik ez dut entzun, baina polita iruditzen zait; eta izen hau duen leku bat dagoela jakin dut. Motza da, behin entzunda ez zaizu inoiz ahazten.



Eva Seguin

Xabi. Betidanik gustatu zaidalako.

Oihane. Bere esanahia gustatzen zaidalako.



Xabier Araiko

Hodei. Uste dut polita dela. Sinplea eta motza da.

Nahia. Nahiz eta gaur egun asko egon, ezberdina eta bitxia iruditzen zaidalako.



Eva Larión

Nahia. Nahia izen polita iruditzen zait. Orain dela gutxi jaiotako ilobari jarri diote. Nik gogo handia neukan beste iloba bat izateko, eta izen horrek nire sentimendua adierazten du.

Adelia Moreno

Aitor. Betidanik Euskal Herriko izenik politena izan da niretzat. Indarra dauka, eta, gainera, nire ilobaren izena delako.

Miren. Sinplea bezain polita delako.



Irantzu Antoñana

Xabier. Beti iruditu zait berezia, agian aitaren izena delako.

Ainara. Izen honen soinua gustatzen zait eta ikasteko erraza da



Maite Ramírez

Gartxot. Lagun batek kontatu zidan Baztango istoriotxo hunkigarri batengatik.

Haizea. Soinua gustatzen zaidalako eta haizea elementu askea delako, hemendik hara eta handik hona dabil eta.



Esti Barreras

Mikel. Asko maite dudan lagun on baten izena delako.

Gider. Beti gustatu zait, eta txikitako lagunaren izena delako. Gainera, izen laburra da, eta betikoa.



Irene Hernández

Haizea eta Ander. Izen alaiak direlako eta edozein adinetan ondo jotzen dutelako.

Estela Larrea

Inhar. Berehala maitemindu nintzen izen horrekin. Bere soinua ederra iruditzen zait. Motza eta esateko erraza (gure eskualdean hori garrantzitsua da, esateko erraztasuna, alegia). Gainera, bi mutiko ezagutzen ditut izen hori dutenak, eta horrek ere eragin zidan; izan ere, senitarteko atseginenak dira. Nire semetako bati horixe jarri nahi nion, baina senarrak ez zuen oso garbi. Agian, beste semerik badut...



Marta Etxeberria

Nerea. Motza eta erraza delako. betiko izenak ditut gustuko, ez zaizkit gustatzen gaur egun jartzen diren arraro horiek.

Julen. Nire lehengusua horrela deitzen delako eta berarekin beti oso ondo moldatu naizelako.



Marina González de San Pedro

Ekaitz. Mutil izenari dagokionez, Ekaitz gustatzen zait. Oso esanahi polita dauka, naturaren elementua da eta. Gainera, indarra adierazten du; bai ahoskerak, baita irudikatzen duenak ere. Nire izaerarekin zerikusi handia du.



Maite.

Neskarena, berriz, MAITE; horren esanahia ere gustatzen zait: maitasuna; balore garrantzitsua iruditzen zait. Gainera, izen hori duen lagun ona daukat.

Garazi. Izen ederra iruditzen zait, gainera, izen hori duen senide baten amapontekoa naiz. Harreman handia dut berarekin; ahizpa txikia balitz bezala tratatzen dut. Ipuinetako izena dela iruditzen zait, soinua berezia duena. Bestetik, izen bera duen iparraldeko herria izugarri polita da.



Itziar López

Iraide. Nire lagun batek horrela izena duelako eta oso gustuko dudalako

Julen.

Julen Gerrero Athletikeko jokalaria hoberenatarikoa izan delako



Barbara Brandao

Irautz(a). Neska nahiz mutilentzako izen aparta. Ahoskera goxoa eta soinua eder askoa. Nortasun handiko izena dela uste dut; esanahia ere oso gogokoa dut. Betidanik argi izan dut seme-alabarik izatekotan, horrelaxe jarriko diodala lehenengoari.

Rakel Herrera

Zuriñe. Neskarena argi daukat, Zuriñe. Gasteiztarra naiz eta horrek zerikusi handia dauka, Andra Mari Zuria berezia baita gasteiztarrentzat. Horretaz gain, nahiz eta ni sinestuna ez izan, nire bizitzako une zail batean, nire amak ia egunero Andra Mari Zuria bisitatzen zuen ospitaletik irtendakoan eta bere ustez ni ondo nago, neurri batean, haren laguntzari esker.



Beñat. Mutilarena ez daukat hain argi, baina nire semeak Beñat du izena. Zerbaitengatik izango da...

Batirtze Goitia

Batirtze. Ni jaio nintzenean, aitari Beatriz izena gustatzen zitzaion, baina amak nahiago zuen euskal izenen bat. Horrexegatik, Batirtze (Beatriz gaztelaniaz) aukeratu zuten.

Gustura eramaten dut, sentimenduz beterik dago!



Rosa Belén Gallego

Unai. Unai da gehien gustatzen zaidan Euskal Herriko izena. Nik hamasei urte neuzkan lehenengo aldiz entzun nuenean. Izugarri gustatzen zait motza eta polita delako. Gurasoek askotan aukeratzen dute Unai beren semeentzat izenik politena delako. Beraz, mutil askok dute izen hau. Dena den, badaude beste izen polit batzuk, adibidez: Oroitz, Peio, Aitor, Aritz.





TESTUAK: Arabako Errioxako IKA

ARGAZKIAK: Arabako Errioxako IKA.

ILUSTRAZIOAK: laodong.com / 123rf.com / rosafernandezsalamnca.blogspot.com / factoriadelcomic.blogspot.com / denunciando.com / maitecorsin.com / tecnologiayciencia.es

Mantible aldizkariaren gainontzeko aleak eskuragarri dituzue gure web orrian tresnak izeneko atalean.

En nuestra página web podéis ver los números anteriores de Mantible, en el apartado de herramientas.

Oiongo IKA euskaltegia. Diputazio kalea, 32. 01320 Oion. 945 601 087

Biasteriko IKA Euskaltegia. Berberana zeharkalea, 5. 01300 Biasteri. 945 621 055

<http://errioxa.ikauskaltegiak.eus>

errioxa@ikauskaltegiak.eus

Zuek ere euskaraz

Las lecciones para practicar euskera que se recogen en Mantible tienen su correspondiente explicación y continuación de lunes a viernes a las 15:30 horas en la sección "Zer moduz?" de Radio Rioja Alavesa (FM 105.8), excepto las publicadas

en julio ya que dicha sección se interrumpe por vacaciones hasta septiembre.

Así pues, a mediados de septiembre llegará a vuestras casas el siguiente número de Mantible que incluirá una nueva lección de euskera, con la

que se reanudará el apoyo en la radio.

Aprovechamos para recordaros que las lecciones de julio están dirigidas a personas con nivel avanzado, las de septiembre a aquellas con nivel inicial y las de diciembre a las de nivel intermedio.

Oraingo honetan konparaketak landuko ditugu. Nabaritu baitugu euskaldun berri askoren kasuan gaztelaniako moldeetara jo ohi dela, esaterako:

- Nik berak ke kromo gehiago ditut.
- Moreta ez da hain handia Oion bezala.
- Gasteizek ez dauka Bilbok hainbeste biztanle.
- Balea elefantearekin konparatuz handiagoa da.



Gainera, euskaraz oso erabilia da konparaketen baliabidea:

- Zorri piztua baino gaiztoago!
- Zein baino zein jatorrago diral!
- Zenbat eta handiago izan, orduan eta tontolapikoago da!
- Ahalik eta azkarren joan zaitez!

Has gaitezen:

BERDINTASUNA ADIERAZTEKO.

Alderatzen dugun ezaugarria adjektiboa edo adberbioa bada, hau da, nola edo nolakoa galderari erantzuten badie, "bezain" erabiliko dugu.

- Ardoa edatea arnasa hartzea bezain garrantzitsua da.

Alderatu nahi duguna zenbagarria bada, berriz, "adina", "beste", "bezainbat", "bezainbeste"...erabiliko ditugu.

- Joxe Marik txoriek adina jaten du.



BERDINAK EZ DIRELA ADIERAZTEKO.

Nola eta nolakoa.

- Dirua ez da osasuna bezain garrantzitsua.
- Osasuna dirua baino garrantzitsuagoa da.
- Osasuna diruaren aldean garrantzitsua da.

Zenbat.

- Txoriak ez du txakurrak adina edaten.
- Txakurrak txoriak baino gehiago edaten du.
- Txakurrak txoriaren aldean asko edaten du.



GEHIENTASUNA ADIERAZTEKO.

- Munduko mendirik altuena Everest da.
- Joxe Marik jaten du gutxien.

GEHIEGITASUNA.

- Txomin handiegia da hor esertzeko.
- Joxe Marik gutxiegi jaten du.



ZENBAIT BALIABIDE.

ONA	HOBEA	ONENA	ONEGIA
ONDO	HOBETO	ONDOEN	ONDOEGI
ASKO	GEHIAGO	GEHIEN	GEHIEGI
POLITA	POLITAGOA	POLITENA	POLITEGIA
GAIZKI	OKERRAGO	OKERREN	OKERREGI



DATOS DEL CURSO 2015-2016

Alumnos/as	Mujeres	Varones	Presencial	Autoaprendizaje
153	117	36	126	27

Las clases se han impartido en Labastida, Laguardia, Lapuebla, Oyón y Logroño.

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
Baños de Ebro / Mañueta	2
Barriobusto / Gorrebusto	1
Moreda / Moreta	2
Elciego / Eltziego	1
Elvillar / Bilar	3
Labraza	2
Labastida / Bastida	13
Laguardia / Biasteri	16
Lanciego / Lantziego	10
Lapuebla de Labarca	8

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
Navaridas	2
Oyón / Oion	36
Leza	1
Samaniego	4
Villabuena de Álava / Eskuernaga	4
Yécora / Ekora	1
NAVARRA / NAFARROA	
Andosilla	1
Bargota	3
Mendavia / Mendabia	1
Viana	10

PUEBLOS / HERRIAK	ALUMNOS/AS / IKASLEAK
LA RIOJA / ERRIOXA	
Alcanadre	1
Cihuri	1
Haro	3
Casalarreina	2
Logroño	24
Navarrete	1